

PRESKRIPZIO TEKNIKOEN PLEGUA

ZINEMA KOMERTZIALA ETA ZINE KLUBA

1.- Filma berriak izan behar dira eta aurreko hilabetean, hilaren 10 baino lehenago tituluak eta laburpena aurkeztu beharko du kultura sailean.

2.- Filma komertzialak izango dira astero.

- Ostirala, zapatua, domeka eta astelehenetan nagusientzat filma bat
- Zapatu eta domeketan hau zinema
- Ostegunetan zine klub

Guztira 3 filma, 7 proiektzio.

3.- Udako zinemaldia uztailan izango da eta 4 filma izango dira, 12 proiektzioetan.

4.- Sarrera nagusientzat 4 euro.

Haur zinema zapatuan eta asteleheneko zinema 2 euro.

Eta domekako haur zinema 3 euro.

Sarreraren bitartez lortutako diru guztia kontratua izaten den enpresarentzat izango da.

Astero, proiektatutako filmen aitorpena bidaliko da Zinematografia eta Ikus-entzunezko Arteen Institutura, takilak kontrolatzeko atalera.

Takilako diru-sarrerak enpresarentzako.

Zine proiektzioaz arduratzen den enpresak jarriko ditu aste bukaera eta jai egunetan lana egingo duten langileak: takilako eta zine proiektzioa arduratuko dena.

5.-Hizkuntza betebeharrak:

- **Hizkuntza gaitasuna:** Administrazioarekin eta herritarrekin harremana duten neurrian, kontratatutako enpresako langileek administrazioak berak bete behar lituzkeen pareko baldintzak bermatu beharko dituzte hizkuntza gaitasunei dagokienez; horregatik, eman beharreko zerbitzuen izaera kontuan izanik, Europako Erreferentzia Markoaren ahozko B2 gaitasun maila egiaztatu beharko dute takilan lan egin behar duten langileek.
Kontratua esleitu aurretik egiaztatu beharko du enpresak gaitasun hori, eta horretarako bi bide erabili ahal izango ditu:
 1. Zerbitzua eman behar duten pertsonen eskatutako hizkuntza gaitasuna daukatela ziurtatzen duen agiria aurkeztea.
 2. Udalak erabakitako froga egitea.Era berean, enpresa kontratatu eta geroago, zerbitzua emango duen pertsona berririk sartuko balitz, horiek ere eskatutako hizkuntza gaitasuna egiaztatu beharko dute.
- **Hizkuntza paisaia:** Errotulu, ohar, eta abarretako mezuak ezagunak edo ulergarriak direnean, euskaraz egingo dira; baina komunikazioa bermatzeko beharrezkoa denean, elebitan egingo dira, euskarari lehentasuna emanez.
- **Erabilera herritarrekin:** Zerbitzuaren erabilzaileari harrera eta erantzuna udalak onartutako hizkuntza-irizpideei jarraituz egingo dira.

- Horren arabera, herritarrekin lehen hitza euskaraz egingo da, baina kontuan izanda herritarrak edozein unetan erabil dezakeela hizkuntza aukeratzeko eskubidea.
 - Haurrei zuzendutako filmen %25 euskaraz izan beharko da, hau da, hilean behin, gutxienez, haurrentzako film bat euskaraz proiektatuko da.
 - Modu berean, era guztietako komunikazioak (film laburpenak, abisuak...) euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, betiere, bertsio egokiak eginez bi hizkuntzetan eta euskarazkoari lehentasuna emanaz.
 - Euskarazko testuen kalitatea ziurtatzeko, zabalpen handiko testuak edota behin eta berriz erabiltzekoak administrazioaren Euskara Zerbitzura eramango dira
- **Erabilera administrazioarekin:** enpresak administrazioarekin dituen ahozko zein idatzizko harremanak (kontratu, faktura, txosten, bilera, ...) administrazioaren lan hizkuntzaren arabera izango dira, hau da euskaraz.